


Berbea gizon egin zan.
(Jn 1, 14)




BERBEAREN OGIA



BERBEAREN OGIA

A. Martzel Andrinua



B I Z I A N G O R A

Berbearen Ogia

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.*

© Ibaizabal argitaletxea, 1998
ISBN: 84-8325-181-7
Legezko gordailua: BI-2033-98
Inprimategia: R. G. M.

A. Martzel Andrinua

Berbearen Ogia

Azala: *Hilario Urkia*
Juan Carlos Landa
Marcos San Blas

Irudiak: *Javier Erostarbe*
Juan Sanchez

DASTATU EIZU

*Jainkoak zenbat maite gaituan
bai dala neurtu ezina!
Aita dogula sinistuz gero,
fedez da gauza jakina.
Berak aurretik, merezi barik,
doan deuskun maitemina:
bialduz Jesus bere Semea
geure antzeko egina,
bere gain hartuz gure neke ta
pekatuaren zikina.
Ez gaur eta ez aintzina,
nor da hain maitale fina!
Zuri eskeintzen deusut bihotzez
ahal izan dodan pitina,
Ogi dan Berba dastatu daizun
zein dan gozo, atsegina!*

A. Martzel

ZATOZE ETA JAN

Oi etxeko mahaiaren gozoa! Han bazi eta bezi gara, gurasoen eta senitar-tearen beroan. Han ikusi izan dogu aita txapela kenduta, amaren bedein-kapenari erantzuten. Han geuregandu doguz herri eta eleiz bizitzako gorabe-hera guztiak. Han jaso ditugu gure herriko bizkuntza, obitura, ipuin eta abesti ederrak. Izan ere, etxeko mahaia da lehenengo eta oinarrizko eskola eta eleizea. Eta etxeko mahaiak buts egiten badau, beste mahai guztietan ere antzemongo da: eleiza, herri, ikastola, eta lantegietako mahaiak lekuko.

Ez da lekuz kanpoko izango, mahaian alkartzean, Jainkoaz oroitzea, bere bedeinkapenez gure mahai inguruko

otordua ornitzea. Izan ere, mahaian barriztatzen doguz giza indarrak; mahaian alkarbanatzen dogu bizitza osoa, berba jarioz eta amorioz; mahaian ospatzen doguz bizitzako joan-etorri guztiak, bertan sendotzen gure arteko maitasun-lokarriak.

Mahaian bizia alkarbanatzen dogu; baina gizakiaren janaria ez da abotik sartzen dan ogia bakarrik, Jesusen erakutsiz. Gure bizitzak beste era askotako bizigarriak behar ditu. Gorputzez haina espirituz bizibarritzen dauan mahaiak betetzen dau bakarrik bere egiteko ederra.

Etxeko mahai ingurua da kristau fedearen oinarrizko topagunea. Jesus ere mahaizale izan zan, bertan banandu ebazan erakutsirik sakenak eta miraririk barrigarrienak egin; azken Afariko misterioan geratu jakun gure bideko janari eta lagun.


Familiako bizitzak hainbeste arrisku ditu gaur egun; bere ingurua gozatu

eta fede indarrez sendotzeko asmoz dozu eskuartean liburutxo hau. Hainbeste aukera dozuz bertan, sailean nahiz aukeran egiteko. Minututxo bat besterik ez da, kristau giroan alkarrekin otoitzalditxo bat eginaz, gure senide guztiekin batasun lokarriak barriztuz. Biztubarri zan Jesusen konbitea jaso daigun geuk ere: "Zatoze eta jan." Ahoz eta gogoz hartzen dozun Ogiak on egin daizula.

A. Martzel

1

ZATÓZ GUREKIN JATERA



Dana danena zan

(Eg 4, 32).

**“Fariseuek eta lege-maisuek
marmarrean ziharduen esanez:**

**«Horrek harrera ona
egiten deutse pekatariei,
baita eurekin jan ere!»”**

(Lukas 15, 2).

OTOITZA

Jauna, zatoz gaur geurekin jatera.
Zure maitasunezko
ikustaldia behar dogu,
parkatu eta sendotu gaizuzan.
Emoiguzu sinismena,
geure artean zaitugula ezagutzeko.
Zure eta gure Ama Mariaren bitartez
eskatzen deutsugu.

2

ESKERRAK ZURI, AITA!



**“Gizakiarentzat onena
jatea, edatea
eta bere lanaren frutuaz gozatzea.
Nik uste dot, hau ere
Jainkoaren eskutik datorrela”**

(Kohélet 2, 24).

OTOITZA

Jauna,
jana eta edana emon deuskuzuz,
geure lan eta nekearen saritzat.
Eskerrak damotsuguz,
hartzen dogun guztia
Zeugandik datorkigu-eta,
geure eta gizon guztien onerako.
Bedeinkatua Zu, Jauna.

3

AIN'TZA, POZAREN JAINKOA!



**“Larrialdi eta atsekabe artean
bizi beharko badozue ere,
irakasle dozuen Jauna
ez jatzue gehiago ezkutatuko;
zeuon begiz ikusiko dozue”**

(Isaias 30, 20).

OTOITZA

Jauna,
pozaren eta itxaropenaren Jainkoa,
goratzen eta eskertzen zaitugu,
Zeuk gu ezagutzen
eta maitatzen gaituzulako.
Egizu, arren, egunen baten,
nekeminetatik biztu ondoren,
Zure aurpegia ikusi daigula.
Zuri ospe eta aintza, gizaldirik gizaldi.

4

EDAN NIRE URETIK



**“Ur honetatik edaten dauana
barrero ere egarri izango da;
Nik emongo deusodan uretik
edango dauana, ostera,
ez da sekula egarri izango”**


(Joan 4, 13-14).

OTOITZA

Jesus, gure Anaia,
eskerrak Zuri, ezagutu zaitugulako
eta deuskuzun maitasuna
sentitzen dogulako.
Emoiguzu zure Berbearen
eta Bizitzaren iturritik edaten,
bidean nekatuta, lur jo ez dagigun.

5

JAUNA DOGU MAHAIKIDE



**“Mahaikide batek
esan eutson Jesusi:
«Zorionekoa Jainkoaren
Erreinuko otorduan
parte hartuko dauana!»”**

(Lukas 14, 15).

OTOITZA

Jauna, mahai honen inguruan
pozez eta adiskidetasunez
alkartzera konbidatzen gaituzu.
Zure Erreinuko ezaugarri
izan nahi dogu.
Lagun eiguzu, lur hontan
Erreinu hori eregiten.

6

BEDEINKATUA ZU!



**“Jainkoak esan eban:
«Emon begiz lurrak bedar hezea,
hazidun landareak
eta guztitariko frutarbolak,
euren hazi eta guzti.»
Eta halan izan zan”**

(Hasiera 1, 11).

OTOITZA

Bedeinkatua Zu, Aita,
emon deuskuzun mundu haugaitik.
Adoretu gaizuz lanerako,
Zeuk doan damoskuzun hau
gizon danak gozau ahal daien.
Bedeinkatua Zu, Jauna.

7

POZEZ BETE GAIZUZ, JAUNA!



**“Jainkoak bialtzen deutsuez euria
eta urtaro aberatsak zerutik,
eta janariz ase
eta pozez bete zaituzte”**

(Eginak 14, 17).

OTOITZA

Aita on ona,
hartzen dogun guztia Zugandik dator.
Lagun eiguzu, arren,
dana bihotz onez gozatzen
eta eskuzabalez alkarbanatzen.
Bedeinkatu gaurko gure janari hau.

8

EGIZUE HAREK DINOTSUENA



“Jende guztiak ardaurik onena
atera ohi dau lehenengo eta,
jendea nahiko edanda dagoanean,
arruntagoa;
Zuk, ostera,
orain arte gorde dozu
ardaurik onena”

(Joan 2, 10).

OTOITZA

Eskerrak Zuri, Aita,
Jesukristo zure Semeagaitik:
Bera etorri jakun
gure alkarbizitza alaitzera
eta gatx guztia menperatzeko
indarrez gu betetzera.
Eskerrak, gaurko senide-otordu hau
alkarrekin jan ahal dogulako!

9

PEKATARIEN MAHAIKIDE



**“Esan eutsieen:
«Zelan jaten eta edaten dozue
zergalari eta pekatariekin?»
Jesusek erantzun eutsen:
«Ez dabe osasundunek sendagilea behar,
gaisoek baino»”**


(Lukas 5, 30-31).

OTOITZA

Zatoz, Jauna,
gure gaiso-gatxak sendatzera
eta gure maitasuna indarbarritzera.
Bete gaizuz adoretz,
gure anai-arrebak zerbitzeko,
eta argitu gaizuz
eurengan zure aurpegia ezagutzeko.

10

ZEURE IZERDIZ JANGO DOZU



Nazareteko langile ona,
Jose da zure izena,
etxean zintzo, auzoan lagun
eta lanean zuzena.
Bedeinka eizuz aita guztiak
ta emon behar dabena:
lana, poza ta kementa.
Berari esker, izan daigula
hornidurik almazena;
aita bera da gure etxe
ondasunik ederrena.

**“Zeure bekokiko izerdiz
jango dozu ogia,
lurrera bihurtu arte,
handik izan zara hartua eta”**


(Hasiera 3, 19).

OTOITZA

Goratzen zaitugu, Jauna,
eguneroko ogia irabazten
laguntzen deuskuzulako.
Lagundu eiguzu esku-lanean.
Erakutsi eiguzu, maitasuna eta jatekoa
ez dabenekin alkarbanatzen.

11

ZORIONEKOAK MAHAIRA DEITUAK!



“Zorionekoak Bildotsaren eztegu-mahaira deituak!”

(Apokalipsia 19, 9).

OTOITZA

Jainko gure Jauna,
eskerrak mahai honen inguruan
batu gaituzulako,
zure Seme Jesukristoren
presentziaz poztuteko.
Bera da gu janaritzen
eta garbitzen gaituan Bildotsa.
Eskerrik asko, Jauna!
ESKERRIK ASKO, JAUNA!

12

NIK BADOT BESTE JANARI BAT



“Berak esan eutsen:

**«Badot Nik beste janari bat,
zuek ez dakizuena.»**

Ikasleak itaundu eutseen alkarri:

«Norbaitek ekarri ete deutso jatekoa?»

Jesusek esan eutsen:

**«Nire janaria, bialdu nauanaren nahia
egitea da,**

Haren salbamen-egintza burutu arte.»


(Joan 4, 32-34).

OTOITZA

Jesus Jauna,
gure Aita Jaungoikoaren nahia egiteaz
asebete nahi dogu.
Bedeinkatzen zaitugu,
jateko ogia gaur emoten deuskuzulako.

13

JESUS GURE MAHAIBURU



**“Ordua etorri zanean,
Jesus mahaian jarri zan apostoluekin.
Eta esan eutsen:
«Baneban gogoaz sufridu aurretik
Pazko-afari hau zuekin egiteko!»**

(Lukas 22, 14-15).

OTOITZA

Jesukristo gure Jauna,
mahaia prest dago,
eta zatoz Zeu gure mahaiburu.
Zure senideok fedez bedeinkatu gaizuz
eta bedeinkatu zure maitasunez
familia hau.

14

HATX GAINEAN ETXEA



**“Beraz, nire berba honeek entzun
eta betetzen dituana,
etxea hatx-gainean jaso eban
gizon zuhurraren antzekoa da.
Euri-zaparradak izan ziran, uriolak etorri,
mendebalak jo, eta etxeari eraso eutsoen;
baina ez zan jausi,
oinarriak hatxean ebazalako”**

(Mateo 7, 24-25).

OTOITZA

Jauna, Zeu nahi zaitugu
gure familiaren oinarriztat.
Bedeinkatu gaizuz egun hontan
eta egizu alkartuta iraun dagigula
edozelango eragozpenen aurrean.
Bedeinkatu gaur jango dogun ogi hau.

15

NEU NAZ OGI BIZIA



Nire gogoak
Jainkoagan dau
bere indarra,
Bera dot Bera
Jaun bakarra.

**“Neu naz zerutik jatsi dan ogi bizia;
ogi honetatik jaten dauanak
betiko bizia izango dau”**

(Joan 6, 51).

OTOITZA

Jesus Jauna,
zatoz gaur gure janari izatera
zeure biziz eta presentziaz.
Zure ondoan aurkituko dogu
pozik bizitzeko indarra.

16

BERBA EGIN, JAUNA



**“Honela dio Jainko Jaunak:
«Hara, badatoz egunak:
lurrera gosea bidaliko dut;
ez ogi-gosea, eta ez ur-egarria,
Jaunaren Berbea entzuteko
gose-egarria baizik.»”**

(Amos 8, 11).

OTOITZA

Aita Santua,
emoiguzu zure Berbea entzuteko gosea,
gure bizitza itxaropenez bete dadin.
Emoiguzu zure egarria,
gure anai-arrebei zerbitzeko.
Bedeinkatu gure etxeko alkarbizitza.

17

ZUREKIN DOGU NAHIKO



**“Ez dogu ezer ekarri mundu honetara
eta ezin izango dogu ezer atera ere.
Beraz, zer jan eta zer jantzi edukiz gero,
aski dogu”**

(1 Timoteo 6, 7-8).

OTOITZA

Aita, Zu zara gure bizitza eta
gure etorkizuna.
Zuregan jarten dogu gure uste osoa.
Eskerrak zure seme-alaba garalako
eta egunero isurtzen deuskuzuzan
mesedeakaitik.
Bedeinkatu gure jatekoa.

18

ZUEK ZAREE MUNDUKO GATZA



**“Zuek zarete munduarentzat gatza.
Baina gatza gezatzen bada,
nola gazitu berriro?”**


(Mateo 5, 13)

OTOITZA

Jauna,
bizi-gozatu nahi dogu mundu hau,
gure berbaz eta testigantzaz.
Gaur hartuko ditugun janariak
indarbarritu gaiezala,
lur jo ez dagigun.
Bedeinkatu gaizuz
zure ahalmenez eta pozez.

19

SINISTEN DOT, JAUNA



**“Gau-ordu hartan bertan,
gartzelariak Paulo eta Silas berekin eramán
eta zauriak garbitu zizkien,
eta berehala bataiatu zen
beretar guztiékin batera.**

**Ondoren, bere etxera igoarazi zituen,
jatekoa atera eta famili festa egin zuten,
Jainkoarengan sinetsi zutelako”**


(Eginak 16, 33-34).

OTOITZA

Jauna, guk Zugar sinistu dogu.
Bateoaren bidez,
danok anai-arreba garan
herri bateko seme-alaba egin gara,
alkar-maitasunaren lokarri gozoz.
Prestauta dogu mahaia, zure Izenean jan
eta alkar-pozetan bizibarritzeko.
Jauna,
bedeinkatu gaizuz zure maitasunez.

20

IZAN ESKUZABALA!



*Agur bihotzez Nazareteko
etxeoandre Maria!
Entzun eiguzu amaren alde
dagitsugun eskaria:
bedeinka eizu eskubetean
etxeo zerbitzaria
eta gure pozkaria.
Zaindu egizu gure etxeo
eguzki dizdizaria,
zeuk emoiozu guk ezin dogun
merezi dauan saria.*

**“Eskuzabala
bedeinkatua izango da,
bere ogia
behartsuarekin
banatzeagaitik”**


(Esaera Zaharrak 22, 9).

OTOITZA

Gure Jaun eta Jainkoa,
kendu gugandik susmoa,
inbidia edo norberekeria.
Lagundu eiguzu
alkar onginahiz eta
begi argiz onartzen.
Egizu, garan eta dogun guztia
alkarbanatzeko gauza izan gaitetzala.

21

HARTU EIZUE ETA JAN



**“Afaltzen ziharduela,
ogia hartu eban Jesusek eta,
bedeinkazinoa esan ondoren,
zatitu eta emon egin eutsen, esanez:
«Hartu eizue, hau nire gorputza da»”**


(Markos 14, 22).

OTOITZA

Jesus Jauna,
mahaian alkartuta eskertzen zaitugu,
gurekin ona eta eskuzabala
izan zaralako.
Eskerrak, zure gorputz eta odola
bizigarritzat emon deuskuzualako.
Eskerrak zure eskuzabala eta pozagaitik.

22

TXIKIEN ARTEAN DAGO JAUNA



**“Txiki honetariko bati,
nire ikasle dalako,
ontzitxo bat ur fresko
besterik ez bada ere emoten deutsona,
benetan dinotsuet,
ez dala saririk gabe geldituko”**

(Mateo 10, 42).

OTOITZA

Jesus Jauna,
gatx egiten jaku Zu ezagutzea
gaur gure artean sufritzen dagozan
ume edo nagusiengan.
Zure ontasunez
eta bedeinkapenez lagundu gaizuz,
eurongan Zu hobeto ezagutu eta
zerbitzeko.

23

ASE GAIZUZ MAITASUNEZ

*Badoqu zegaz mantendu
ta zegaz gosea kendu.
Neurriz jan-edan, astiro jardun
ta ez gehiegi gizendu;
zure gogoko izango al da
gaur prestatu dodan menu.*



**“Hobe barazkiak maitasunarekin,
txahalki gozoa gorrotoarekin baino”**

(Esaera Zaharrak 15, 17).

OTOITZA

Jauna, zure maitasunez ase gaizuz,
alkarrekin hazten joan gaitazan.
Bihotz apal eta zabalez
bizi gaitezala beti.
Bedeinkatu, arren,
hain maite zaituan familia hau.

24

OGIA ALKARBANATZEN



**“Ogia etxeetan zatitzen eben,
otorduak alkarrekin pozik
eta bihotz xaloz eginez”**

(Eginak 2, 46).

OTOITZA

Jauna, zure izenean gagoz alkartuta,
alkarrekin ogia jateko.
Lagundu eiguzu, etxeko guztiok
alkarrekin apalak
eta lauak izan gaitezan.

25

ZUK JATEN EMON ZEUNSTAN



**“Hartu eizue munduaren sortzetik
zuentzat prestauta dagoan erreinua.**

**Gose izan nintzan eta
jaten emon zeunsten;
egarri, eta edaten emon”**

(Mateo 25, 34-35).

OTOITZA

Jauna, eskerrak emoten deusuguz
janaria eta edaria
emon deuskuzuzalako.
Emoiguzu zure grazia,
lurreko behartsuen artean
Zeu ezagutzeko
eta euren alde zintzo jokatzeko.

26

BAI MAITE GAITUZULA, JAUNA!



**“Bai zoragarria zure maitasuna, o Jainko!
Zure egapera batzen dira gizakiak.
Zure etxeko janari guriz asetzen dituzu,
zure atseginen ibaian edanazoten”**

(Salmoak 36, 8-9).

OTOITZA

Gure Aita ona,
eskerrak emon nahi deutsuguz,
zure guganako maitasun gozoa
familia honetan ezagutu ahal dogulako.
Gero eta alkartuago egin gaizuz.
Zure izenean alkar zerbiduko dogun
janari haugaitik bedeinkatzen zaitugu.

27

ZU ZARA GURE MAISUA



**“Herriren batean sartu eta
ondo hartzen bazaitue,
jan jartzen deutsuenetik,
osatu bertako gaisoak eta esaiezue:
«Ganean dozue Jainkoaren erregetza.»**


(Lukas 10, 8-9).

OTOITZA

Jesus Jauna, zure ikasle gara,
uri eta baserrietan bananduak.
Lagun eiguzu
geure bizieraz erakutsi ahal dagigun
zure erreinua hur-hurrean dogula.
Janari honekin gure indarrak
barriztu nahi doguz,
Zeu hobeto zerbidu zaiguzan.

28

ZU GURE JANARI



**“Nire gorputza
benetako janari da,
eta nire odola
benetako edari”**


(Joan 6, 55).

OTOITZA

Jauna,
zure maitasunetik
eta alaitasunetik
jan-edan nahi dogu.
Orduan bai zerbidu ahal izango doguz
eskuzabalez gure anai-arrebak.
Bedeinkatu gaizuz egun honetan.

29

ZU ZARA BIZIAREN OGIA



**“Entzun eta ulertu ondo!
Gizakia ez dau kutsatzen
ahotik sartzen jakonak;
ahotik ateratzen jakonak,
horrek kutsatzen dau gizakia”**


(Mateo 15, 10-11).

OTOITZA

Jauna, Zeuk lagundurik
gure ahotik atera daitezela
parkamenezko, zuzentasunezko
eta bakezko berbak.
Eta gaur hartuko doguzan janariak
indarbarritu gaizala,
Zeu hobeto zerbitzeko eta
gehiago maitatzeko.

30

GURE ARTEAN ZAGOZ



Nazareteko familian Zu
gurasoen esaneko,
Jainko semea gizaseme da
nagusiena menpeko.
Seme-alabak bedeinka eizuz
o Jesus Nazareteko!
Egizuz zeure antzeko.
Etxe ta auzo izan daitezan
maitasunez laguntzeko;
gorputz ta gogoz hazten lagundu
Zeu izan zinan pareko.

**“Hauxe izango dot beti nire egoitza,
hementxe biziko naz,
gogoko dot eta.
Oparo bedeinkatuko dodaz
bertako batzarrak,
ogiz aseko behartsuak”**

(Salmoak 132, 14-15).

OTOITZA

Jauna, gure Aita,
zagoz gure artean
eta lagun eiguzu zure gogoko izaten,
bai gure berbaz, bai gure egitez.
Bedeinkatu gure jan-edariok,
eta egizu behartsuak ere
ugari izan dagiela.

31

NI ZERBITZARI LEZ NAGO



**“Zein ete da haundiago,
mahaian dagoana ala
zerbitzen diharduana?
Ez ete mahaian dagoana?
Bada, Ni zerbitzari lez nago zuen artean”**

(Lukas 22, 27).

OTOITZA

Jesus Jauna,
gizonen Zerbitzari apala,
bedeinkatzen zaitugu gurekin
hain ona zaralako.
Erakutsi eiguzu alaitasunez zerbitzen,
bai familia honetan, bai lagunartean.

32

JESUS HAZIAZ JOIAN



**“Aitak esan eutsen morroiei:
«Ekarri bizkor jantzirik onena
eta jantzi egiozue, ipini egiozue eraztuna
eta jantzi oinetakoak;
ekarri zekor gizendua eta hil;
eta jai egin dagigun»”**

(Lukas 15, 22-23).

OTOITZA

Jauna, Gure Jainkoa,
lagun eiguzu familia onartzaile bat osotzen,
bertan egunero hazten joan gaitезan,
bai sinismenean eta bai alkar-zerbitzen.
Mariak zuzendu gaizala,
batasunean bizi gaitезan.

33

ZATOZE ETA JAN

*Kontuz erabili gatza,
bardin koipe eta saltsa.
Zaindu arduraz osasuna ta
gozatu barru garratza;
gorputza neurriz zaintzen badozu
orduan bai aberatsa!*



**“Egarri zareen guztiok, etorri uretara,
etorri, dirurik ez dozuenok ere!
Etorri, hartu garia eta jan,
hartu ardaa eta esnea,
dana hutsean, ordaindu barik”**

(Isaias 55, 1).

OTOITZA

Bedeinkatzen zaitugu, Aita,
zure Erreinuko eztegora
konbidatzen gaituzulako.
Han ez da izango goserik, ez nahigaberik.
Lagun eiguzu, zure Erreina
egunero egiten jardun gaitezana,
gizon bakoitza zoriontsu izatea lortu arte.
Bedeinkatu gaizuz zure maitasunez.

34

JARRAITU NAHI DEUTSUGU



**“Egiaz, Jaunak curia emongo dau,
eta gure lurak frutua ekarriko.
Jaunaren aurretik joango da justizia,
Haren urratsei jarraituko ongizateak”**

(Salmoak 85, 13-14).

OTOITZA

Jauna,
alai eta pozik alkartzen gara gaur
zure ondasunak gozatzeko.
Emoiguzuz behar doguzan indarrak,
bai gure hurkolaguna zerbitzeko,
bai zure salbamena zabaltzeko.

35

BEDEINKA GAIZUZ, JAUNA



Nahizta ibili
ilunpean,
Jauna, Zugaz ni
poz-bakean.

**“Hartu ebazan Jesusek
bost ogiak eta arrain biak,
eta, begiak zerura jasorik,
bedeinkazinoa esan, ogiak zatitu
eta ikasleei emon eutsezan,
jendeari eskeintzeko”**


(Lukas 9, 16).

OTOITZA

Jesus Jauna, bedeinkatzen zaitugu
ogia Zeuk alaitasunez
banatzen deuskuzulako.
Eskerrak, Aita, Zuk inoiz ere
bertanbehera izten ez gaituzulako!
Eskerrak gure alkarmaitasuna
eta familia haugaitik!
Eskerrik asko, Jauna!

36

ERRUKI BEKIGU JAINKOA



**“Bada hemen bost garagar-ogi
eta arrain txiki bi dituan mutiko bat;
baina zer da hori honenbesterentzat?”**


(Joan 6, 9).

OTOITZA

Eskerrak Zuri, Jauna,
gutaz erruki zaralako,
eta gure neke-lanetan indartzen gaituan
ogia ugaritzen deuskuzulako.
Erakuts eiguzu
behartsuekin alkarbanatzen.

37

EMOIGUZU ZURE OGIA



**“Zorionekoak
Jainkoaren nahia betetzeko
gose-egarri diranak,
Jainkoak aseko ditu eta”**


(Mateo 5, 6).

OTOITZA

Jauna,
emoiezu ogia gose diranei
eta zure gosea ogia dabenei.
Bedeinkatu gaur gure familia hau.

38

DANA DA GEURETZAT



**“Jainkoak esan eutsen:
«Hara, zeuei emoten deusuedaz
lurrazalean diran
hazidun landare guztiak
eta hazidun frutarbola guztiak;
horreek izango dituzue janari.»”**

(Hasiara 1, 29).

OTOITZA

Bedeinkatua Zu, Jauna, ogi haugaitik,
lurraren indarrak
eta gizonaren lanak sortua.
Zure eskuzabaletik hartzen dogu gaur.

39

ZATOZ, JAUNA, GURERA



**“Gaur heldu da salbamera etxe honetara,
gizon hau ere Abrahamen
ondorengoa da eta.
Izan ere, Gizonaren Semea
galdua egoana bilatzera
eta salbatzera etorri da”**


(Lukas 19, 9-10).

OTOITZA

Zatoz, Jauna, gure etxera.
Emoiguzu zure salbamera eta bakea,
hain beharrezkoak doguz eta.
Bedeinkatu gure eguneroko alkarbizitza
eta gaur eskeintzen deuskuzun ogia.

40

ZEIN GOZO TA EDER DAN!



Mahaiburu doguz aititamamak
guretzat maitagarriak,
gure famili honen zutabe,
jatorri ta oinarriak.
Bedeinkā eizuz, Jaungoiko Aita,
ase euren egarriak
ta zaindu irribarriak.
Sendotu, Jauna, mahai-inguruko
senitarte-lokarriak,
zeru gozo bat osotu daigun
zahar, gazte, jaiobarriak.

**“Bai eder dala, bai gozo,
senideak alkaturik bizitzea!”**

(Salmoak 133, 1).

OTOITZA

Zatoz, Jauna, gure gainera.
Jarri gagizuz maitasunaren
eta batasunaren alde.
Lagun eiguzu
anai lez pozik bizitzen.
Bedeinkatu familia hau eta ogi hau.

41

GORA ZU, JAUNA!



**Gorputzak,
bat izan arren,
atal asko ditu**

(1 Ko 12, 12).

**“Jainkoa bedeinkatuz
hartzun dogun eskerronezko kopak,
ez al gaitu Kristorekin bat egiten
Beronen odolean?”**

(1 Korintoarrei 10, 16).

OTOITZA

Jesukristo gure Jauna,
gaur zure maitasunean eta ontasunean
alkarrekin bat egin nahi dogu.
Bedeinkatu gaizuz zure bakeaz,
eta lagun eiguzu
alkarrekin batasunean bizitzen.

42

HUR-HURREAN ZAUKAGUZ, JAUNA



“Sion mendian, Jaun ahalguztidunak
otordu oparoa emongo dau
nazino guztientzat,
janari gozo mamintsuz,
ardau zahar bikainez”


(Isaias 25, 6).

OTOITZA

Gure Jaun eta Jaungoikoa,
zuzendu gure bideak
zure Erreinuko ezteguetara,
han betiko pozetan bizi gaitezana.
Bitartean zure laguntzaz zaindu gaizuz,
gugandik hur-hurrean maitasunez egonez.
Bedeinkatua Zu, Jauna.

43

ETORRI MAHAIRA



“Jesusek esan eutsen:

«Etorri gosaltzera.»

Ikasleetako inor ez zan ausartzen

nor zan itandutera,

ondo ekien Jauna zana eta.

Orduan, Jesusek, hurreraturik,
ogia hartu eta emon egin eutsen,

baita arraina ere”

(Joan 21, 12-13).

OTOITZA

Jesus Jauna,
Zu berbiztuta gure artean bizi zara.
Ez zaitugu aurpegiko begiz
argi ikusten.
Baina ogia alkarbanatzean,
zure hurtasuna somatzen dogu.
Bedeinkatu gaizuz, Jauna,
eta bultzatu gure eskulana.

44

EMOIGUZU EGUNEROKO OGIA



**“Emoiguzu gaur egun honetako ogia,
eta parkatu gure erruen zorrak,
guk ere gure zordunei
parkatzen deusegun ezkeru”**

(Mateo 6, 11-12).

OTOITZA

Eskerrak Zuri, Jauna,
Zuk egunero emoten deuskuzun ogia
alkarbanatzeko poza
eskeintzen deuskuzulako.
Alkar maitatzeko dohaia ere emoiguzu,
beti alkar laguntzen bizi gaitzezan.

45

DANOK GORPUTZ BAT GARA



**“Ogia bat danez,
danok gorputz bat gara,
ogi bakarretik
hartzen dogulako danok”**

(1 Korintoarrei 10, 17).

OTOITZA

Eskerrak, Jauna,
guztiok ezbardinak egin gaituzulako
eta guztiok mahai honen inguruan
alkartu gaituzulako.
Alkartzen gaituan ogi haugaitik
eskertzen zaitugu.

46

ETORRI ETA EGON ADI



**“Zergaitik gastatu dirua
goserik itziko zaituen janaritan,
eta lansaria,
aseko ez zaituen gauzetan?
Entzun Niri arduraz,
eta ondo jango dozue,
janari gozo mamintsuz janarituko zaree.
Etorri Niregana eta egon adi,
entzuidazue eta biziko zaree”**

(Isaias 55, 2-3).

OTOITZA

Zeuk bakarrik janaritzen gaituzu, Jauna,
eguneroko maitasunez.
Lagun eiguzu gure anaien
zerbitzari alaiak izaten
eta gogotsu lan egiten,
giza familia osoaren onerako.

47

DAUKANAK EZ DAUKANARI



**“Harek erantzun eutsen:
«Soineko bi dituanak emon daiola bat
jantzirik ez dauanari,
eta jatekoa dauanak ere
banatu daiala»”**


(Lukas 3, 11).

OTOITZA

Gure Jainko Jauna,
Eskeintzen deuskuzun ogiagaitik
eskerrak emoten deusuguz.
Lagun eiguzu, daukagun dana
lurreko behartsuenekin alkarbanatzen.
Eskuzabaltasunaren
eta zuzentasunaren
dohaiez bedeinkatu gagizuz.

48

BEDEINKATUA ZURE IZENA!



**“Zuetako norbaitek,
semeak ogia eskaturik,
harria emongo ete deutso?
Edo, arraina eskaturik,
sugea emongo ete deutso?”**

(Mateo 7, 9-10).

OTOITZA

Bedeinkatzen dogu zure Izena, Aita,
zure edertasunez betetzen gaituzulako
eta zure ontasuna
erakusten deuskuzulako.
Eskerrak, bertanbehera
izten ez gaituzulako
eta dohaiez zure semeok
hornitzen gaituzulako.

49

ZUK JANTZI EGIN NINDUZUN



**“Gizon zintzoak
jatekoa emoten deutso gosetuari
eta jantzia biluzik dagoanari.
Ez da lukurreroa eta ez dau
emona baino gehiagorik hartzen”**


(Ezekiel 18, 7-8).

OTOITZA

Jauna, mundu barri bat nahi dogu,
guztiok zer jan, zer edan eta zer jantzi
izango dogun mundu bat.
Emoiguzu adore,
gure ahaleginetan pot eginda
geratu ez gaitezana.
Isuri guregana
zure bedeinkapena eta laguntza.

50

EUREN MENPEAN BIZI IZAN ZAN



*Gure artetik joan jakuzan
senide bihotzekoak
mahai-inguruan gogoan doguz
hain ditugu etxeakoak!
Ez ahaztu, Jauna, hareek eta gu
garala mahai batekoak,
odol, fede berekoak,
Zeuk emoiezuz bake ta poza
betiko ta betekoak,
hareek eta gu Zeuk egin gaizuz
egiz zorionekoak.*

**“Jesus eurekin Nazaretera jatsi
eta euren menpe bizi izan zan.
Amak gogoan hartzen ebazan
jazoera guztiok.
Jesus haziaz joian,
bai jakituriaz, bai gorputzez,
eta Jainkoak eta gizakiek
gero eta gogokoago eben”**

(Lukas 2, 51-52).

OTOITZA

Gure Jaun eta Jaungoikoa,
lagun eiguzu etxe-bizitza baketsua egiten,
bertan sinismenean
eta alkar-zerbitzuan
helduaz joan gaitzan.
Mariak emon deigula grazi-indarra
batasunean bizi gaitzan.

51

ZATÓZ GUREKIN AFALTZERA



**“Behin batean, fariseu batek
afaltzera konbidatu eban Jesus.
Joan zan, bada, Jesus fariseuaren etxera
eta mahaian jarri zan”**

(Lukas 7, 36).

OTOITZA

Zatoz, Jauna, gaur gure etxera.
Pozik eta apalik onartzen zaitugu.
Bedeinkatu, arren, zure izenean
hartuko doguzan jan-edanok.

52

ZENBAT MESEDE!



“Beraz, zuek, gaiztoak izanik,
seme-alabei gauza onak
emoten badakizue,
zenbatez areago ez deutsez
zuen zeruko Aitak gauza onak emongo
eskutzen deutsoezanei?”

(Mateo 7, 11).

OTOITZA

Aita ona,
gure familiaren alde
eskatu nahi deusugu,
alkar benetan maitatzen ikasi daigun
eta gero eta alkartuago bizitzen.
Emoiguzu bizitzeko behar doguzan
ogia eta maitasuna.

53

BAKOITZAK BERE DOHAIA



**“Lagundu fededunei
euren beharrizanetan;
emon gogoz ostatu arrotzari”**

(Erromatarrei 12, 13).

OTOITZA

Jauna, gure gogo bizia hauxe da:
gure etxea edegia
eta abegi onekoa izan dadila,
daukagun guztia,
minez eta ezinez
dagozanekin alkarbanatuz.
Bedeinkatu eizu gaur gure familia.

54

JAUNAREKIN BAT EGINDA



**“Nire gorputza jaten
eta nire odola edaten dauana
Nirekin bat eginda dago,
eta Ni berarekin”**

(Joan 6, 56).

OTOITZA

Bedeinka gaizuz, Jauna
zure maitasun-indarrez.
Lagun eiguzu zure gorputza jaten
eta anai-arreba lez alkartuta edaten.

55

GAUR ZURE ETXERA NATOR



Herriak eta
danok kanta,
Jauna dogula
danon Aita.

**“Jesusek, hara eldutean,
gora begiratu eta esan eutson:
«Zakeo, jatsi berehala,
gaur zure etxean gelditu behar dot-eta.»
Jatsi zan, bada, berehala
eta pozik hartu eban bere etxean”**

(Lukas 19, 5-6).

OTOITZA

Jesus Jauna,
Zu betiko konbidatua zara
gure etxean.
Zatoz egunero gurera,
gurekin jatekoa alkarbanatzen
eta gure fedea biztuten.
Bai pozik ere hartzen zaitugula
gure artean!

56

ALKARBIZITZAN POZIK



**“Danak apostoluen irakaspenak
entzuteari
eta alkarte-bizitzari emonak bizi ziran,
ogi-zatitzea eta otoitza
alkarrekin egiten ebezalarik”**

(Eginak 2, 42).

OTOITZA

Jesus Jauna,
zure Eleizearen irakatsien
ikasle zintzo egin gaizuz.
Gure Artzainekin batuta zaindu gaizuz,
eta egizu, gaur alkarrekin
jango dogun ogi honek
indarbarritu daiala gure batasuna.

57

JAN POZKARIOZ!



**“Ea bada!
Jan pozkarioz zeure ogia,
edan alai zeure ardaua,
gogoko jakoz Jainkoari
zure egintzak”**


(Kohelet 9, 7).

OTOITZA

Gure Jaun eta Jaungoikoa,
gure egintzak zure gogoko
izan bekizuz, arren;
horrela eskeintzen deusguzan
jan-edanak
onuragarri izan dakiguzan.

58

EZ ZAITUET UMEZURTZ ITZIKO



“Oraindik pozaren pozez
sinistu ezinik
eta guztiz harriturik egozanez,
Jesusek esan eutsen:
«Ba al dozue hemen jatekorik?»
Arrain erre pixka bat eskeini eutsoen.
Jesusek hartu eta
euren aurrean jan eban”
(Lukas 24, 41-43).

OTOITZA

Jesus Jauna,
Zure presentziak
poztu eta harritu egiten gaitu.
Bedeinkatua Zu!
Gure konbite-deia onartu eizu
eta zatoz gurekin alkarbanatzera
hemen dogun janaria.
Zatoz, Jesus Jauna!

59

POZTU GAIZUZ, JAUNA



**“Ezteguak izan ziran Galileako Kanan,
eta han zan Jesusen ama.
Jesus eta Beronen ikasleak ere
konbidatu ebezan ezteguetara”**


(Joan 2, 1-2).

OTOITZA

Jesus Jauna,
konbite egiten deusugu
gure pozaldi eta jai honetan
gurekin parte hartzera.
Hemen daukazu zure etxea
eta zure familia.
Gure ama Mariak lagun egin deigula
eta mahaia bedeinkatu daiala, nahi dogu.

60

ESKERRAK LUR AMAGAITIK



*Etxean pozgarri da
mahai-ingurua,
asetzen deuskuz sabel,
bihotz ta burua.
Beti zaindu daigula
gozo ta berua,
Jainkoa lagun, dadin
lurreko zerua.*

**“Bizi eta mogitzen dan
guztitik jan daikezue;
lehenago landareak lez,
dan-dana emoten deusuet”**

(Hasiera 9, 3).

OTOITZA

Aita Jainkoa,
eskerrak emoten deusuguz
lurra guztiontzat emonez,
agertu deuskuzun maitasunagaitik.
Eskerrak gaur ontasunez
janaritzen gaituzulako.

61

ON EGIN ALKARRI



**“Berba batean, aukera dogunean,
egin deiegun guztiei on,
batez ere fedean senide ditugunei”**

(Galaziarrei 6, 10).

OTOITZA

Eskerrak, Jesukristo Jauna,
eguneroko ogia
eskeintzen deuskuzulako,
gure anai-arrebak hobeto
zerbidu ahal izateko.
Lagun eiguzu
gizaki guztiei on egiten.

62

EZ GARA OGIZ BAKARRIK BIZI



Daukanak ez daukanari,
ogia gosea danari.
On egiteko gosea emon
Jauna, asebeteari;
bizi gaitez an alkarlagunduz
danok batak besteari.

“Premina gorrian jarri zinduezan,
gosea pasau erazo
eta mana emon eutsuen jaten,
ez zuek, ez zuen arbasoek,
ezagutzen ez zenduen janaria,
zuei jakin erazoteko,
gizakia ez dala ogiz bakarrik bizi,
Jaunak esaten dauanetik
bizi dala baino”

(Deuteronomioa 8, 3).

OTOITZA

Jauna,
zure Berbaz janaritu nahi dogu.
Berak hazten eta janaritzen gaitu.
Emoiguzu Zuri egunero
entzuteko grazia
eta bedeinkatu eizu
maite zaituenen familia hau.

63

MUTILOK, BOTA SAREA!



**“Jesusek esan eutsen:
«Mutilok, badozue jatekorik?»**

Hareek erantzun:

«Ez.»

**Jesusek esan eutsen:
«Bota sarea txaluparen eskumaldera
eta aurkituko dozue.»**

(Joan 21, 5-6).

OTOITZA

Jesukristo Jauna,
bota dogu sarea
geure janaria lortzeko.
Zatoz gurekin zertxobait jatera.
Eta Zurekin egoteak poztu
eta bedeinka gaizala.

64

ATEAN NOZU DEIKA



**“Hara, atean nozu deika;
norbaitek nire ahotsa entzuten badau
eta atea edegi,
harenean sartuko naz
eta alkarrekin afalduko dogu”**

(Apokalipsia 3, 20).

OTOITZA

Jauna, gure Laguna,
gaur gure etxeko atearak
edegiten deusuguz.
Gurekin afaldu daizula nahi dogu
eta zure Berbeak
bizkortu gaizala egunero.
Bedeinkatu, arren, jango dogun ogia.

65

ZEUGANDIK DOGU DANA



**“Labore-opari bat
eskeiniko deutzozue Jaunari:
ogi bi eroango dozuez zeuen etxetik,
erritozko aurkezpen-keinu eginez Jaunari
lehen frutu lez eskeintzeko”**

(Lebitarrena 23, 16-17).

OTOITZA

Eskerrak, Jauna, barrero ere
mahai honen inguruan
alkartzen gaituzulako.
Gure janari hau eskeintzen deutzugu,
lurraren indarrak eta
gizakiaren lanak sortua.
Zugandik hartu dogu
eta Zeuri aurkezten deutzugu.

66

ZEURE ANTZEKO EGIN GAITUZU



**“Abereentzat bedarra erneazoten dau,
lanerako animalientzat jatekoa.
Soloetatik ateratzen dau ogia,
eta gizakiaren bihotza
alaitzen dauan ardaa,
aurpegia distirakor egiten dauan orioa
eta giza indarrak barritzen dituan ogia”**


(Salmoak 104, 14-15).

OTOITZA

Izadiaren eta lurraren Aita,
egunero emoten deuskuzuzan gauzakaitik
eskerrak emoten deutsuguz.
Bedeinkatu, arren, langileak,
eurai esker guk jan-edaten dogu-eta.
Lagun eiguzu bakean bizitzen.

67

OGI ZERUTIK ETORRIA



**“Nire Aitak emoten deusue
zeruko egiazko ogia”**

(Joan 6, 32).

OTOITZA

Bedeinkatua Zu, Aita,
zure Seme Jesukristogaitik.
Berak bizkortzen dau gure fedea
eta indarbarritzen gure itxaropena.
Bedeinkatua Zu, Jauna!
BEDEINKATUA ZU!

68

EDEGI GURE BIHOTZAK



**“Ez da herrian behartsurik faltako;
horregaitik agintzen deutsuet
zeuen herritarrekin,
zeuen ardurapean dituzuen dohakabe
eta behartsuekin, eskuzabal izateko”**


(Deuteronomio 15, 11).

OTOITZA

Jainko Jauna,
edegi gure bihotza
urkoaren beharrizanen aurrean.
Erakutsi eiguzu
daukagunagaz eskuzabal izaten,
eta gogotsu ahalegindu gaitez
guztientzat zuzentasuna izan dadin.

69

BIZIBARRITU GAIZUZ, JAUNA!



“Inoiz egin ete deusot uko
behartsuen eskubideari?
Itzi ete dot andra alargunik
negarrez mintzen?
Neuk bakarrik jan izan ete dot
neure ogia
umezurtzarekin alkarbanatu barik?”

(Job 31, 16-17).

OTOITZA

Jauna, ezarri gudan justiziaren,
eskuzabaltasunaren
eta errukiaren sentipenak.
Lagun eiguzu,
daukaguna alkarbanatzen
gizarteko behartsuekin.
Bedeinka gaizuz zure maitasunaz.

70

GUREKIN DOGU JAINKOA



*Herrian bada mahai bat
herri osokoa,
ahal dan bestean danei
on egitekoa.
Hantxe dauka herriak
bere ordezkoa,
herri-zerbitzariok
zaindu Zeuk, Jainkoa!*

**“Gero, promes hau egin eban Jakobek:
«Jainkoa nerekin badot,
eta bidaia honetan babesten banau,
jateko ogia eta janzteko erropak
emoten badeustaz,
aitarenera bizirik eta
osasuntsu bihurtzen banaz,
Jauna izango dot nire Jainkoa.»”**

(Hasiera 28, 20-21).

OTOITZA

Zu zara gure Jaungoikoa,
goratzen zaitugu,
zaintzen eta babesten gaituzulako.
Goratzen zaitugu,
Zuk zeure Etxe zabalean
ontasunez hartzen gaituzulako.
Bedeinkatu eta sendotu gaizuzala
eskätzen deusugu, arren.
Jesukristo Gure Jaunaren bitartez.

71

ZORIONEKOAK!



**“Zorionekoak morroi horreek,
nagusiak, etortzean,
zain aurkitzen baditu.
Benetan dinotsuet:
Jantziak aldaturik,
mahaian jarriazoko ditu
eta zerbitzen hasiko jake”**

(Lukas 12, 37).

OTOITZA

Jesukristo Gure Jauna,
itzarrik iraun nahi dogu,
zure bisitaldia pozez onartzeko.
Eskerrak Zuri,
gure mahaiko zerbitzari
Zeu zarealako!
Bedeinkatu jatera goazena
eta emoiguzuz zure bakea eta poza.

72

EZ KEZKATU!



Jarrita dago platera,
goazen danok bazkaltzera.
Pozik hartuko zaitugu, lagun,
zatoz mesedez gurera;
jan ta edanez jai egin daigun
anai-arreben antzera.

**“Horregaitik dinotsuet:
Ez kezkatu bizitzeko
zer jan edo edango,
edota gorputza zerez jantziko.
Ez ete da bizia janaria baino gehiago,
eta gorputza jantzia baino gehiago?”**


(Mateo 6, 25).

OTOITZA

Jauna,
Zeugan jartzen dogu gure uste osoa,
gure Aitatzat Zeu ezagutzen zaitugulako.
Eskerrak,
une guztietan
emoten deuskuzun danagaitik!
Eskerrak,
gure gorputza eta bizitzagaitik!

73

GELDI ZAITEZ GUREKIN



**“Ikasle biak bidean jazotakoa
eta zelan ogia zatitzean ezagutu eben
kontatu eutsen”**

(Lukas 24, 35).

OTOITZA

Jauna,
Zu berbizturik zagoz
eta zure presentzia ezagutu nahi dogu
mahai honetan.
Zatoz jan eta edaten geure ondoan.

74

BEDEINKATU GAIZALA JAUNAK!



“Une haretan,
Melkisedek Xalengo erregeak
ogi-ardauak atera ebazan,
Goi-Goiko Jainkoaren abadea zan-eta,
eta Abran bedeinkatu eban, esanez:
Goi-Goiko Jainkoak,
zeru-lurren egileak,
bedeinka zaizala, Abran!
Eta bedeinkatua izan bedi
Goi-Goiko Jainkoa,
zure arerioen garaile egin zaitualako”

(Hasier 14, 18-20).

OTOITZA

Bedeinkatzen zaitugu,
Gure Aita ona,
zeru-lurren erregaloz
bedeinkatu gaituzulako.
Eskertzen zaitugu
gatx guztiak menperatzeko indarra
eskeintzen deuskuzulako.
Bedeinkatzen zaitugu
bizibarritzen gaituan ogiagaitik
eta alaitzen gaituan ardaugaitik!

75

ALKARBANATZEN BIZI



**“Bazkaria emon dagizuenean,
dei egiezu behartsu, elbarri,
herren eta itsuei.
Eta zoriontsu izango zara”**


(Lukas 14, 13-14).

OTOITZA

Jauna, gure etxeko atearak
beti zabalik nahi ditugu euki,
maitasun-bila datozenak onartzeko.
Eta egizu, gure mahaiko ogia
behartsuekin alkarbanandu daigula.
Bedeinka gaizuz zure maitasunaz.

76

ZU GURE OSASUN



**“Etorri da Gizonaren Semea
jan-edan egiten dauala,
eta honela dinoe:
«A zer tripontzi eta mozkorra,
zergalari eta pekatarien laguna!»
Baina egiteek autortzen dabe
Jainkoaren jakituria zuzena dala”**

(Mateo 11, 19).

OTOITZA

Jauna,
zatoz gaur geure mahaian jesartera.
Zatoz geurekin jan-edatera.
Emoiguzuz zure parkamena,
maitasuna eta poza.

77

ZATOZE ZEUOK BAKARRIK



“Jesusek esan eutsen:
«Zatoze zuok bakarrik
leku gorde batera,
eta hartu atsedeen pixka bat.»
Joan-etorrian ebiltzanak asko ziran-eta,
ez eben jateko astirik ere”


(Markos 6, 31).

OTOITZA

Eskerrak Zuri, Jauna,
gure ogia eta adiskidetasuna
alkarbanatzeko gogoia eta aukerea
emon deuskuzuzalako.
Bedeinka egizuz
gure eskuarteko lanak,
mundu hobe eta
gizakoiago bat egin daigun.

78

JAINKOAK ASEKO GAITU



“Jesusek ikasleei begira,
honela esan eban:
«Zorionekoak orain gose zareenok,
Jainkoak aseko zaitue-eta»”

(Lukas 6, 20-21).

OTOITZA

Eskerrak, Jauna,
egiaren eta justiziaren gose-egarria
ezarri deuskuzulako.
Egizu, arren,
egunen baten zure Erreinua
ikustearen atseginez ase gaitzala.
Jateko honek
indarbarritu gaizala,
Zu hobeto zerbitzeko.

79

BEDEINKATU, JAUNA, GURE MAHAIA



“Hareek arren eta arren eskatu eutsoen:
«Gelditu zaitetz gurekin,
berandu da-eta eta iluna gainean dogu.»
Eta herrian sartu zan, hareekin gelditzeko.
Ondoren, alkarrekin mahaian jarri ziran,
eta Jesusek, ogia harturik,
bedeinkazinoa esan,
zatitu eta emon egin eutsen.
Orduan, begiak edegi jakezan
eta ezagutu egin eben”


(Lukas 24, 29-31).

OTOITZA

Jauna, Emausko ikasleen antzera,
geuk ere eskatzen deusugu gaur:
Gelditu zaitetz gurekin.
Bizi zaitetz etxe honetan;
gure mahaikide egin zaitetz,
gure maitasuna eta ogia bananduz.
Zu gure artean zaitugula sinisten dogu.

80

ESKERRAK ZURE KONBITEAGAITIK!



*Munduan bizitzeko
behar dogu jana,
eta hau lortuteko
lantegiko lana.
Jaten dogunok egin
daigun apur bana,
izan daigun gizon lez
behar dogun dana.*

**“Orduan, nagusiak
esan eutson morroiari:
«Hoa bidez bide eta bazterrik bazter
eta sartuazo jendea barrura,
etxea bete dakidan.**

**Egia esan,
konbidatu hareetariko batek ere
ez dau nire afaria dastatuko»”**


(Lukas 14, 23-24).

OTOITZA

Jauna,
zure konbite-deiari “bai” dinotsogu.
Makalak gara-eta,
zure mahaitik jan behar dogu
eta zure janaria hartu.
Eskerrak dei egin deuskuzulako!

81

PARKATZEA MAITATZEA DA



Ogiak bedeinkatu,
zatitu eta
emon eutsezan

(Mateo 14, 19).

“Jauna,
senideren batek
bidegabekeriaren bat egiten badeust,
zenbat bider parkatu behar deusat?
Zazpi bider?”

Jesusek erantzun eutson:

«Zazpi bider ez,
zazpi milatan zazpi bider.»

(Mateo 18, 21-22).

OTOITZA

Jauna,
erakutsi eiguzu senide lez bizitzen.
Lagun eiguzu maitasuna agertzen,
eragozpenak menperatzen
eta oker eginak parkatzen.
Bedeinkatu, arren,
gaur hartzera goazen janaria.

82

IZAN ALKAR-ZERBITZARI



**“Haundiki baten mahaian
zagozanean jesarrita,
ez ahaztu noren aurrean zagozan.
Jatun haundia bazara,
eutsi zure jangureari.
Ez egon haren jaki gozoen irrikaz,
zu harrapatzeko izan leitekez-eta”**

(Esaera Zaharrak 23, 1-3).

OTOITZA

Jauna,
ez itzi gure artean
haundiusterik sartzen.
Emoiguzu bihotz xume eta apala,
irabaziari begiratu barik zerbitzeko.
Bedeinka egizu familia hau,
Zu gauza guztien gainetik
maite zaitu-eta.

83

EGIN DAIGUN JAI!



*Ama dan eskuzabala
ta zerbitzari apala!*

*Aita Jainkoak gure partetik
Berak bedeinka zaizala!*

*Nik mun eginda, eskertzen zaitut,
oi amaren amantala!*

**“Orduan, pentsatzen jarririk,
berekautan esan eban:
«Zenbat langile gure aitarenean
nahi haina ogi eta gehiago dabela,
eta ni hemen goseak hilten!
Jagi eta aitarengana joango naz»”**

(Lukas 15, 17-18).

OTOITZA

Ontasun-iturri zarean Aita,
Zugandik urrun bagabiltz,
bakarrik eta lurjota sentitzen gara.
Eskerrak Zuri,
zure etxera bihurtzean,
beti jai eta guzti onartzen gaituzulako.
Eskerrak, bai, Zuri,
gure itxaropena
indarbarritzen deuskuzulako.

84

BEDEINKATU, JAUNA, GURE LANA



“Nork landatzen dau mahastia
eta gero beronen fruetatik jaten ez?
Nork janaritzen dau artaldea
eta ardien esnetik edaten ez?”

(1 Korintoarrei 9, 7).

OTOITZA

Jauna,
gaur jango dogun ogia
gure senide nekazari askok landutako
lurraren frutua da.
Eskerrak, eurak isiltasunez
egiten daben guztiagaitik!
Bedeinkatu eizu gure lana
eta eguneroko nekea.

85

ZAINDU GAIZUZ BAKEAN



**“Zure senide batek
pekatu egiten badau,
zoaz berarengana
eta zuzendu egizu bakarrean.
Jaramo egiten badeutsu,
irabazi dozu senidea”**

(Mateo 18, 15).

OTOITZA

Aita,
lagun eiguzu senide lez bizitzen.
Emoiguzu zure bakea,
alkar ulertu
eta gogo onez alkar entzun daigun.
Erakutsi eiguzu
hutsegiteak alkarri parkatzen.
Bedeinkatu gaurko janari hau.

86

BEGO GURE ETXEA ZABALIK



**“Hobe ogi-zati gogor bat eta
nasaitasuna,
etxean jaiak eta burrukak baino”**

(Esaera Zaharrak 17, 1).

OTOITZA

Aita,
erakutsi eiguzu
alkarregaz bakean bizitzen.
Ez itzi gu haundikerietan jausten,
on apalak izan gaitezala baino.
Lagun eiguzu
bake-giroan bizitzen.
Eskerrak
gaur emoten deuskuzun ogiagaitik!
ESKERRIK ASKO, JAUNA!

87

EMON, JAUNA, ZURE OGITIK



**“Hauxe da gogoko dodan baraua:
gose danari zeure ogitik emon
eta aterperik ez dauan behartsua
etxean hartzea”**


(Isaias 58, 6-7).

OTOITZA

Jauna,
emoiguzu bihotz zabala,
gure ogia eta maitasuna
alkarbanandu daiguzan.
Lagun eiguzu, zure aurpegia
lurreko behartsuen artean ezagutzen.

88

ZUGAN DOGU BIZIA



**“Eta ahalsua da Jainkoa,
era guztietako dohaiak
zuei oparo emoteko,
zeuentzat danetik nahikoa izanik,
egintza on guztietarako
gehigarri izan dagizuen”**


(2 Koriontoarrei 9, 8).

OTOITZA

Emoiguzu ugari, Jauna,
zure bedeinkapena eta maitasuna.
Eta lagun eiguzu
eskuzabalez zerbitzen
gure inguruan bizi diranei.
Bedeinka gaizuz zure alaitasunez
eta batasunean bizi gaitezala, arren.

89

ZAINDU GAIZUZ ALKARTASUNEAN



**“Ea, jan nire ogia
eta edan nik nahasturiko ardaa.
Itzi txorakeriak eta biziko zaree!
Gero,
jarraitu zuzen zentzunezko bideari”**


(Esaera Zaharrak 9, 5-6).

OTOITZA

Jainko Aita,
familia honen Adiskidea,
indarbarritzen gaituan
ogia jan nahi dogu.
Zure ondoan dagoz beti
hiltzen ez diran egia eta poza.
Lagun eiguzu
egunero Zeu ezagutzen
eta aurkitzen.

90

ESKERRAK ZURE OGIAGAITIK



*Ikastolako mahaiak
dau betekizuna:
landu ume-gazteen
sena ta zentzuna.
Bai dala mahai ederra,
baina hain biguna!
Zaindu Zeuk maisu-maistren
erantzunkizuna.*

**“Jesusek ogiak hartu eta,
eskerronezko otoitza egin ondoren,
banatu egin ebazan
jesarrita egozanen artean”**


(Joan 6, 11).

OTOITZA

Eskerrak, Jauna,
emoten deuskuzun ogiagaitik!
Eskerrak, Jauna,
janaria eta adiskidetasuna
alkarbanatzen deuskuzulako.

91

MIRAGARRIA ZARA, JAUNA!



**“Euria emongo deutsue Jaunak
lurrean ereindako haziarentzat,
eta gari mardul eta oparoa
emongo dau lurrak”**

(Isaias 30, 23).

OTOITZA

Bedeinkatua Zu, Jauna,
gauza danak jakituriz
eta edertasunez sortu dituzulako.
Eskerrak gure bizileku ditugun
mundua eta izadiagaitik.
Bedeinkatu, arren,
zure eskutik datorkigun janaria.

92

BEDEINKATU GUK EREINDAKOA



*Ene Jaungoiko lastana,
guztion Aita zarana!
Zeugandik hartu dogu bizia,
Zeuri zor deusugu dana;
bedeinka gaizuz geu mahaikideok
eta mahaiko jan-edana.*

**“Ereiteko hazia eta jateko ogia
emoten dituan Jainkoak,
emongo deusue hazia,
ugarituko dau zuek ereindakoa
eta oparo gehituko
zuen eskuzabaltasunaren emoitzak”**

(2 Korintoarrei 9, 10).

OTOITZA

Esker onez beterik gaukazuz, Aita,
gure artean banandu dituzun
ondasun guztiakaitik.
Bihotz beroz bedeinkatzen zaitugu.
Egizu,
ez gaitezala geurekoiak izan.
Eraġutsi eiguzu
daukaguna alkarbanatzen.
Eskerrik asko ogi haugaitik!

93

BATU GAIZUZ ZURE ETXEAN



**“Eta Jesusek esan eutsen:
«Baneban gogoan sufridu aurretik
Pazko-afari hau zuekin egiteko!
Egia esan,
ez dot Pazkorik gehiago ospatuko
Jainkoaren Erreinua
bere betera heldu arte.»”**

(Lukas 22, 15-16).

OTOITZA

Jauna,
Zeu zara gure konbite-laguna
eta gure janari beharrezkoena.
Zatoz geurekin
mahaikide izatera,
indarbarritu gure sinismena
eta itzartu gure itzaropena.
Batu gaizuz egunen baten
zure Erreinuko ezteguan.

94

NEU NAZ ZERUKO OGIA



**“Jesusek erantzun eutsen:
«Neu naz bizia emoten dauan ogia;
Niregana hurreratzen dana
ez da, ez, sekula gose izango,
eta Niregan sinisten dauana
ez da behin ere egarri izango»”**

(Joan 6, 35).

OTOITZA

Jesukristo Jauna,
gaur alkarbanatzen dogun jan-edaria
Zeuk deuskuzun maitasunaren
ezaugarria da,
benetan gure artean egon zagoz eta.
Egizu beti Zeurekin bat eginda
bizi gaitezala.

95

DANA GERTU DAGO



**“Gizon bat
afari haundi bat emotekoa zan
eta jende asko konbidatu eban.**

**Afarikoan,
morroia bialdu eban
konbidatuei esatera:
«Etorri, dana gertu dago eta»”**

(Lukas 14, 16-17).

OTOITZA

Jesus Jauna,
hemen gaukazuz alkartuta,
Zeurekin alkarbanatzeko
maitasunaren eta justiziaren otordua.
Bedeinka eizu janaria,
baita berau prestau dabenen eskuak ere.
Eta bedeinka gaizuz geu ere
Maria, gure Amaren izenean.

96

ZEUOK ZAREE NIRE ADISKIDE



**“Etxeko nagusiari esan egiozue:
«Maisuak itanduten dau non dauan
ikasleekin Pazko-bildotsa jateko tokia.»**

**Berak gela zabal bat
erakutsiko deutsue goian,
jantzirik eta atondua;
prestatu hantxe behar ditugunak”**

(Markos 14, 14-15).

OTOITZA

Jesukristo Jauna,
afaria karinoz prestatua dago.
Zure ikasleok Zeurekin
jan nahi dogu gure etxean.
Bedeinkatu, arren, daukagun janaria.
Aintza Zuri gizaldien gizaldietan.

97

INDARBARRITU GAITEZAN



“Abranek esan eutsen:
«Jateko zerbait ekarriko deusuet
indarbarritu zaitez.
Gero, bideari jarraituko deusozue.
Zerbaitegaitik igaro zaree
zuen zerbitzari honen ondotik.»”

(Hasiera 18, 5).

OTOITZA

Bedeinkatzen zaitugu, Jauna,
gaur emoten deuskuzun ogi haugaitik,
gure indarrak barriztatzeko
eta geure bideari aurrera jarraitzeko.
Bedeinka gaizuz,
Ama Mariagaz batera.

98

BILATU BETIKO ONDASUNAK



**“Ahalegindu zaitze,
ez galtzen dan janariagaitik,
betiko irauten eta
bizia emoten dauan
janariagaitik baino”**

(Joan 6, 27).

OTOITZA

Jesus Jauna,
anaiarteko mahai honetan
jan nahi dogu gaur,
bizi barriko janaria.

99

ZEURE SEME-ALABA GARA



**“Begira aireko hegaztiei:
ez dabe ereiten, ez uztarik batzen;
ezta garautegietan gordeten ere.
Hala ere,
Jainkoak janaritzen ditu.
Ez ete dozue
horreek baino gehiago balio zuek?”**


(Lukas 12, 24).

OTOITZA

Aita,
zure seme-alaba gara
eta ezin hobeto ezagutzen gaituzu.
Zeuk dakizu zeintzuk diran
gure beharrianak.
Eskerrak,
maitasunez zaintzen gaituzulako
eta eguneroko ogia
eskeintzen deuskuzulako.

100

ZURE EGARRI GARA, JAUNA



*Aldareko mahaia da
besteen lokarri,
hauxe dogu beste mahai
danen sendogarri.
Jesus, mahai guztietan
mahaiburu Zeu jarri,
Zeuk zaindu mahai danok
lotuta alkarri.*

**“Bazan Lazaro izeneko eskeko bat ere,
haren ate ondoan egoten zana;
zauriz josita egoan.
Pozik jango ebalaberatsaren
mahaitik jausten zana.
Txakurrak ere etorri eta
zauriak miazkatzen eutsoezan”**

(Lukas 16, 20-21).

OTOITZA

Jesus, gure Anaia,
eskerrak emoten deusuguz,
Zeu ezagutzeagaitik
eta Zeuk deuskuzun maitasuna
biziazoten deuskuzulako.
Emoiguzu, arren, zure Berbatik
eta zure Bizitzatik jan-edaten,
bidean nekatuta, lurjo ez daigun.

AURKIBIDEA

Zatoze eta jan	9
1. Zatoz gurekin jatera	12
2. Eskerrak Zuri, Aita!	14
3. Aintza, pozaren Jainkoa!	16
4. Edan nire uretik	18
5. Jauna dogu mahaikide	20
6. Bedeinkatua Zu!	22
7. Pozez bete gaizuz, Jauna!	24
8. Egizue Harek dinotsuena	26
9. Pekatarien mahaikide	28
10. Zeure izerdiz jango dozu	30
11. Zorionekoak mahaira deituak!	32
12. Nik badot beste janari bat	34
13. Jesus gure mahaiburu	36
14. Hatx gainean etxea	38
15. Neu naz Ogi bizia	40
16. Berba egin, Jauna	42
17. Zurekin dogu nahiko	44
18. Zuek zaree munduko gatza	46
19. Sinisten dot, Jauna	48
20. Izan eskuzabala!	50
21. Hartu eizue eta jan	52
22. Txikien artean dago Jauna	54
23. Ase gaizuz maitasunez	56
24. Ogia alkarbanatzen	58
25. Zuk jaten emon zeunstan	60
26. Bai maite gaituzula, Jauna!	62
27. Zu zara gure maisua	64
28. Zu gure janari	66
29. Zu zara biziaren Ogia	68
30. Gure artean zagoz	70
31. Ni zerbitzari lez nago	72
32. Jesus haziaz joian	74
33. Zatoze eta jan	76
34. Jarraitu nahi deutsugu	78
35. Bedeinka gaizuz, Jauna	80
36. Erruki bekigu Jainkoa	82

37. Emoiguzu zure Ogia	84
38. Dana da geuretzat	86
39. Zatoz, Jauna, gurera	88
40. Zein gozo ta eder dan!	90
41. Gora Zu, Jauna!	92
42. Hur-hurrean zaukaguz, Jauna	94
43. Etorri mahaira	96
44. Emoiguzu eguneroko ogia	98
45. Danok gorputz bat gara	100
46. Etorri eta egon adi	102
47. Daukanak ez daukanari	104
48. Bedeinkatua zure Izena!	106
49. Zuk jantzi egin ninduzun	108
50. Euren menpean bizi izan zan	110
51. Zatoz gurekin afaltzera	112
52. Zenbat mesede!	114
53. Bakoitzak bere dohaia	116
54. Jaunarekin bat eginda	118
55. Gaur zure etxera nator	120
56. Alkarbizitzan pozik	122
57. Jan pozkarioz!	124
58. Ez zaituet umezurtz itziko	126
59. Poztu gaizuz, Jauna	128
60. Eskerrak lur amagaitik	130
61. On egin alkarri	132
62. Ez gara ogiz bakarrik bizi	134
63. Mutilok, bota sarea!	136
64. Atean nozu deika	138
65. Zeugandik dogu dana	140
66. Zeure antzeko egin gaituzu	142
67. Ogi zerutik etorria	144
68. Edegi gure bihotzak	146
69. Bizibarritu gaizuz, Jauna!	148
70. Gurekin dogu Jainkoa	150
71. Zorionekoak!	152
72. Ez kezkatu!	154
73. Geldi zaitez gurekin	156
74. Bedeinkatu gaizala Jaunak!	158
75. Alkarbanatzen bizi	160

76. Zu gure osasun	162
77. Zatoze zeuok bakarrik	164
78. Jainkoak aseko gaitu	166
79. Bedeinkatu, Jauna, gure mahaia	168
80. Eskerrak zure konbiteagaitik!	170
81. Parkatzea maitatzea da	172
82. Izan alkar-zerbitzari	174
83. Egin daigun jai!	176
84. Bedeinkatu, Jauna, gure lana	178
85. Zaindu gaizuz bakean	180
86. Bego gure etxea zabalik	182
87. Emon, Jauna, zure Ogitik	184
88. Zugan dogu bizia	186
89. Zaindu gaizuz alkartasunean	188
90. Eskerrak zure Ogiagaitik	190
91. Miragarria zara, Jauna!	192
92. Bedeinkatu guk ereindakoa	194
93. Batu gaizuz zure Etxean	196
94. Neu naz zeruko Ogia	198
95. Dana gertu dago	200
96. Zeuok zaree nire adiskide	202
97. Indarbarritu gaitезan	204
98. Bilatu betiko ondasunak	206
99. Zeure seme-alaba gara	208
100. Zure egarri gara, Jauna	210